ehbildu

EH Bilduren Kode Etikoa

Aurkibidea

I. Kode etikoaren esanahia eta irismena

II. Eh bildu komunitate politiko gisa

III. Printzipioak eta balioak

IV. Konpromiso publikoak

V. Jokabide-kodeak eta jarduteko jarraibideak

VI. Jokabide-kode orokorra

VII. Osotasun ekonomikoaren arloko jokabide kodea

VIII. Informazioa eta datu pertsonalak babesteko jokabide-kodea

IX. Jokabide-kode digitala

X. Kode etikoaren konpromisoen onarpena, irismena eta erregistroa

XI. Kode etikoaren arauak

Xedapen gehigarriak, iragankorrak eta azkenak

Atxikimendu-dokumentua EH Bilduren kode etikoari

I. Kode etikoaren esanahia eta irismena

Kode Etikoa Euskal Herria Bilduren kultura politikoa adierazten duten printzipioak, balioak, konpromisoak eta oinarrizko jokabide-arauak ezartzen dituen esparru-araua da, eta haren jarduera arautzen du.

Kultura politiko hori Kode Etiko honen oinarria da, eta politika-jardunbide bat bideratzen du, zintzotasunean, hurbiltasunean, konpromiso kolektiboan, umiltasunean, herritarrekiko errespetuan, gardentasunean, kontuak ematean eta eraldaketa-bokazioan oinarrituta.

Kode Etikoa loteslea da eta EH Bilduren barne-araudiaren parte da. Ez da asmoen adierazpen hutsa, baizik eta EH Bilduren kultura etikoa eta antolakuntzazkoa definitzen duen eta haren osotasun- eta betetze-sistemaren oinarriak ezartzen dituen tresna arauemaile nagusia.

EH Bilduk ulertzen du etikak eta politikak binomio bereizezina, iraunkorra eta zorrotza izan behar dutela. Horregatik, Kode honek erantzukizun publikoan, defendatzen denaren eta jarduteko moduaren arteko koherentzian, interes orokorrarekiko konpromisoan eta printzipio demokratikoekiko errespetuan oinarritutako izateko, jarduteko eta politika egiteko modu bat adierazten du.

Kode Etikoak EH Bilduren barne-bizitza eta funtzionamendu antolakuntzazkoa arautzen ditu, eta, era berean, haren izenean, ordezkaritzan, proposamenez edo babes politikoarekin jarduten dutenen jarduera publikoa, instituzionala, ekonomikoa eta ordezkaritza-jarduera bideratu eta lotzen du. Lotura horrek bereziki eragiten die bilkide direnei, kargu publiko hautetsiei, kargu organikoei, izendapen askeko karguei, talde institucionaletako kideei eta erantzukizun publiko edo instituzionaletarako izendatu edo proposatutako pertsonei, bai gobernu-funtzioetan, bai oposizio-funtzioetan.

Era berean, Kode Etikoa ustelkeria prebenitzeko, interes-gatazkak kudeatzeko, eta jarduera publiko osoa, gardena, zorrotza, arduratsua eta kontu-ematea behar duena bermatzeko tresna da.

EH Bildurekin lotutako pertsonek, beren eguneroko jokabidearen eta erantzukizun politiko, instituzional, antolakuntzazko edo sozialen egikaritzaren bidez, EH Bilduren identitate politiko eta etikoa definitzen duten balioak eta konpromisoak ordezkatzen eta gauzatzen dituzte.

Gainera, jokabide-kodeek, protokoloek, eranskinek eta gainerako barne-tresnek kode honetan ezarritako printzipioak eta konpromisoak garatzen dituzte, eta erakundearen barneko arau-sistemaren parte dira. Karguagatik, erantzukizunagatik edo jarduera-eremuagatik hala dagokionean, Kode Etikoa osatzeko, berariazko eranskinak edo berariazko garapen-konpromisoak sinatu ahal izango dira.

Horregatik guztiagatik, Kode Etikoak EH Bilduren zintzotasun- eta betetze-sistema eratzen du, bere printzipio eta balioekin koherentea den praktika politikoa sendotzera eta herritarrek beren jardun politiko eta instituzionalean duten konfiantza sendotzera bideratua.

II. EH Bildu komunitate politiko gisa

EH Bildu Alternatiba Eraikitzen, Eusko Alkartasuna eta Sortu alderdi politikoek osatutako federazioa da, eta, bere antolaketa-konfigurazioaz gain, euskal indar politiko nazional, ezkerreko subiranista, feminista, demokratiko, plural eta eraldatzaile gisa ulertzen da, bai eta proiektu komuna partekatzen duten eta inolako alderdi politikori atxikita ez dauden pertsonen parte-hartzeari irekitako mugimendu politiko eta sozial gisa ere.

Euskal Herria da bere erreferentziazko eremu politikoa, herri gisa jardutea bere indargune nagusietako bat dela sinetsita. Bere lehentasunezko jarduera Hego Euskal Herriko lurraldeetan garatzen da, Ipar Euskal Herriko EH Bairekin lankidetza estrategikoko harremanak mantenduz eta, indar bakoitzaren nortasuna eta prozedurak errespetatuz, Euskal Herriarentzako espazio komun, partekatu eta konfederal baterantz aurrera egiteko borondatea partekatuz.

EH Bilduren komunitatea proiektu politiko kolektiboaren garapenean laguntzen duten pertsonek osatzen dute, inplikazio, kidetasun eta erantzukizun maila desberdinetatik, balio demokratikoekiko, justizia sozialarekiko, feminismoarekiko, giza eskubideen defentsarekiko, herri-partaidetzarekiko eta Euskal Herriaren eraldaketa politiko eta sozialarekiko konpromiso komuna partekatuz.

EH Bilduk, beste indar eta eragile sozial batzuekin batera, subiranotasunaren, justizia sozialaren, sakontze demokratikoaren eta berdintasunaren proiektu bat artikulatzen du, Euskal Herria aske, demokratiko, sozialki justu, berdintasunezko eta herri-subiranotasunean oinarritua eraikitzera bideratua.

EH Bilduren kultura politikoaren parte da desberdinen arteko elkarrizketa, negoziazioa eta akordioa, euskal gizartearen interes orokorraren defentsara eta kultura demokratiko, plural, inklusibo eta errespetuzko bat indartzera bideratuta.

III. Printzipioak eta balioak

Kode honetan jasotako printzipio eta balioek EH Bilduren eta bere komunitatea osatzen duten pertsonen jarduera orientatzen duen esparru etiko eta politikoa osatzen dute. Bere helburua da balio demokratikoekin, justizia sozialarekin, gardentasunarekin, herri-partaidetzarekin eta herritarrekiko konpromisoarekin koherentea den praktika politiko bat sustatzea.

Halaber, irizpide gisa jarduten dute erantzukizun politiko, instituzional eta antolakuntzazkoen egikaritzan, integritatean, zintzotasunean, erantzukizun publikoan eta kontuak ematean oinarritutako kultura politiko bat indartzen lagunduz.

PRINTZIPIO ETA BALIO GIDARIAK

1. Koherentzia politikoa eta eredugarritasuna
EH Bilduk bere printzipioen, erabakien eta praktiken arteko koherentziaren arabera jarduten du. Sinesgarritasun politikoak eskatzen du hitzak, jarduera instituzionalak, jokabide antolakuntzazkoak eta herritarrekiko harremanak balio etiko eta politiko berberen araberakoak izatea. Eredugarritasuna etengabeko eskakizuna da edozein erantzukizun gauzatzeko orduan.

2. Justizia soziala, berdintasuna eta duintasuna
EH Bilduk pertsona guztien arteko berdintasun erreala eta eraginkorra sustatzen du, edozein diskriminazio, desberdintasun, bazterketa edo indarkeria mota borrokatuz, eta giza duintasuna, oinarrizko eskubideak eta justizia soziala defendatuz bere ekintza politikoaren ardatz nagusi gisa. Jarduera politiko eta antolakuntzazko oro oinarrizko eskubideen eta askatasun publikoen benetako errespetua bermatuz garatuko da.

3. Gardentasuna, zintzotasuna eta kontuak ematea
EH Bilduk kudeaketa garden, irisgarri eta arduratsua bultzatzen du, informazio publiko garrantzitsua eskuratzea erraztuz eta egian, zintzotasunean, elkarrekiko konfiantzan eta kontuak ematean oinarritutako kultura politiko bat sustatuz.

4. Komunitatearen zerbitzura eta konpromiso eraldatzailea
EH Bilduren ekintza politikoa gizartearen zerbitzura eta Euskal Herriaren eraldaketa sozial eta nazionalera bideratuta dago, beti interes orokorra eta eskubide kolektibo eta sozialak edozein interes partikular, pertsonal edo korporatiboren aurretik jarriz.

5. Hurbiltasuna, errespetua eta entzute aktiboa
EH Bilduk politika egiteko modu hurbil bat sustatzen du, entzute aktiboan, elkarrizketa zintzoan eta bizitza sozial eta komunitarioan presentzia izatean oinarrituta. Jarduera politiko oro aniztasunarekiko, dibertsitatearekiko eta oinarrizko eskubideekiko errespetutik garatuko da.

6. Talde-lana, aniztasuna eta diziplina demokratikoa
EH Bilduk talde-lana lehenesten du protagonismo indibidualaren aurretik, lankidetza, barne-aniztasuna, demokratikoki hartutako erabakiak errespetatzea eta erakundearen deliberazio-prozesuetan leialki parte hartzea sustatuz.

7. Umiltasuna, austeritate eta baliabideen erabilera arduratsua
Erantzukizun politiko eta antolakuntzazkoak betetzeak umiltasuna, neurritasuna eta erantzukizuna eskatzen ditu baliabide publiko eta kolektiboen kudeaketan, edozein pribilegio, xahutze edo okupatutako posizioaren erabilera desegoki saihestuz.

8. Erantzukizuna, konpromisoa eta etengabeko hobekuntza
EH Bilduri lotutako pertsonek beren eginkizunak dedikazioz, arduraz eta etengabeko hobekuntzarako bokazioz beteko dituzte, prestakuntza politikoa, etikoa, teknikoa eta antolakuntzazkoa etengabeko erantzukizun gisa onartuz.

9. Feminismoa eta eraldaketa soziala
EH Bilduk feminismoa printzipio politiko, etiko eta antolakuntzazko transbertsal gisa hartzen du, heteropatriarkatuaren ondoriozko desberdintasun estrukturalak eta indarkeria, diskriminazio eta menderatze mota guztiak gainditzera bideratua. Feminismoa eraldaketa sozial, politiko eta antolakuntzazkorako funtsezko tresna da, eta erakundearen jarduera osoa orientatzen du.

10. Zaintzaren kultura
EH Bilduk zaintza jarduera politiko eta antolakuntzazkoaren printzipio gisa txertatzen du, pertsonei, harremanei, kontziliazioari, komunitateari eta ingurune naturalari arreta eskainiz, eta parte-hartze baldintza duin eta berdintasunezkoak bermatuz.

11. Elkarrizketa, negoziazioa eta akordioa
EH Bilduk elkarrizketa, negoziazioa eta akordioa tresna funtsezkotzat hartzen ditu eraikuntza demokratikorako, bizikidetza politikorako eta euskal gizartearen interes orokorraren defentsarako.

Jarduera politiko oro oinarrizko eskubideen eta askatasun publikoen benetako errespetua bermatuz garatuko da.

IV. Konpromiso publikoak

Kode Etiko honetan jasotako printzipio eta balioak EH Bilduren jarduera politiko, instituzional eta antolakuntzazkoa orientatzen eta arautzen duten konpromiso publiko batzuetan zehazten dira. Konpromiso horiek erakundearen borondatea adierazten dute, zintzotasunetik, erantzukizunetik, gardentasunetik eta kontuak ematetik jarduteko, herritarren aurrean.

1. Proiektu politikoarekiko eta koherentzia politikoarekiko konpromisoa
EH Bilduk demokratikoki hartutako printzipio, balio, helburu eta erabakiekin modu koherentean jardutea, proiektu politiko kolektiboaren garapenean aktiboki lagunduz eta diskurtso publikoaren, praktika instituzionalaren, jarduera antolakuntzazkoaren eta jokabide pertsonalaren arteko kontraesanak saihestuz.

2. Zintzotasunarekiko eta interes orokorrarekiko konpromisoa
Ekintza politiko eta instituzionala zintzotasunetik, erantzukizunetik eta gizartearen zerbitzutik egitea, beti interes orokorra eta eskubide kolektibo eta sozialak edozein interes partikular, pertsonal, ekonomiko edo korporatiboren aurretik jarriz.

3. Kudeaketa arduratsu eta gardenarekiko konpromisoa
Kudeaketa publiko eta antolakuntzazko eraginkor, neurritsu, garden eta kontuak emateko mekanismoen mende bat sustatzea, baliabide publiko eta kolektiboen erabilera egokia bermatuz eta edozein kargu edo funtzio politiko eta antolakuntzazkoren erabilera desegokia saihestuz.

4. Herri-partaidetzarekiko eta partaidetza komunitarioarekiko konpromisoa
Ekintza politikoa hurbiltasunetik, entzute aktibotik eta herritarrekiko, gizarte-mugimenduekiko, eragile komunitarioekiko eta gizarte zibil antolatuarekiko harreman iraunkorretik garatzea, partaidetza demokratikoa eta gizarte- eta herri-mobilizazioa sustatuz.

5. Talde-lanarekiko eta diziplina demokratikoarekiko konpromisoa
Erantzukizun politiko eta antolakuntzazkoak lankidetzatik, erantzunkidetasunetik eta talde-lanaren aitorpenetik egikaritzea, barne-aniztasuna eta erakundeak demokratikoki hartutako erabakiak errespetatuz.

6. Feminismoarekiko, berdintasunarekiko eta diskriminazioak ezabatzearekiko konpromisoa[1]
Pertsonen arteko berdintasun erreala eta eraginkorra bultzatzea eta zero tolerantziako politika mantentzea edozein indarkeria edo diskriminazio motaren aurrean, bereziki matxismoan, arrazakerian, xenofobian edo LGTBIfobian oinarritutakoak, feminismoa eta berdintasunaren ikuspegia jarduera politiko eta antolakuntzazko osoan txertatuz.

7. Umiltasunarekiko, zaintzarekiko eta errespetuarekiko konpromisoa
Edozein erantzukizun politiko edo antolakuntzazko umiltasunetik, errespetutik eta zaintzaren kulturatik egikaritzea, pertsonalismoa, harrokeria, posizio-abusua edo pribilegioak edo bidegabeko mendekotasun-egoerak sortzen dituen edozein jokabide saihestuz.

8. Etengabeko hobekuntzarekiko eta prestakuntzarekiko konpromisoa
Etengabeko prestakuntzan, kritika eraikitzailean, autokritikan eta etengabeko hobekuntzan oinarritutako antolaketa-kultura bat sustatzea, EH Bilduri lotutako pertsonen gaitasun politikoak, etikoak, teknikoak eta antolakuntzazkoak indartuz.

1 Konpromiso hau Plan Feministaren eta Indarkeria Matxistaren aurkako Protokoloaren (IMAP) bidez zehaztuko da

9. Ustelkeriaren eta interes-gatazken aurkako konpromisoa[2]
Zero tolerantziako politika mantentzea ustelkeriaren eta etika publikoaren aurkako edozein jokabideren aurrean, interes-gatazkak, eragin-trafikoa, bidegabeko abantailak edo baliabide eta erantzukizun publiko edo antolakuntzazkoen erabilera irregularra prebenitzeko, detektatzeko eta ikertzeko mekanismoak bultzatuz.

10. EH Bilduren sistema etiko eta arauemailearekiko konpromisoa
EH Bilduren proiektuari lotutako pertsona guztiek erakundearen kultura politiko eta etikoa ezagutu, errespetatu eta garatzen laguntzen dutela bermatzea, Kode Etiko honen, hura garatzen duten Jokabide Kodeen eta Federazioak demokratikoki hartutako erabakien arabera jardunez.

11. Errespetua, giza duintasuna eta indarkeriaren gaitzespena oinarri hartuta jarduteko konpromisoa
Pertsona guztiekiko errespetuz jokatzea, eta aurkari politikoaren izen ona kaltetzea, haren bizitza pribatuan bidegabeki esku hartzea, irainak, deskalifikazio pertsonalak edo bestelako eraso pertsonalak erabiltzea helburu duten jokabideak baztertzea, une oro giza duintasuna, giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak errespetatuz.

Jarduera politikoa bide baketsu eta demokratikoetatik soilik garatuko da, eta ez da indarkeria erabiliko, sustatuko edo legitimatuko helburu politikoak lortzeko tresna gisa edo konfrontazio politikorako bitarteko gisa. Ondorioz, ekintza politikoa elkarrizketan, negoziazioan eta printzipio demokratikoen errespetuan oinarrituko da.

V. Jokabide-kodeak eta jarduteko jarraibideak

Jokabide-kodeek Kode Etikoaren printzipio, balio eta konpromiso publikoak garatzen dituzte, eta jarduera-eremu espezifikoetan aplika daitezkeen jokabide-jarraibide operatiboetan zehazten dituzte, hala nola erakundeetan, antolaketan, digitalean, ekonomikoan, informazioaren babesean, osotasunean eta interes-gatazketan, besteak beste.

1. Izaera loteslea
Indarrean dauden Jokabide Kodeek izaera loteslea izango dute Kode Etiko honen mende dauden pertsona guztientzat, eta horiek ez betetzea Kode Etikoa ez betetzea izango da ondorio guztietarako.

2. Koherentzia eta arau-hierarkia
Jokabide-kodeak Kode Etikoaren, EH Bilduren Estatutuen eta barneko gainerako arau-sistemaren arabera interpretatuko dira. Kontraesanik izanez gero, goragoko mailako araua nagusituko da beheragokoaren gainetik.

Aurrekoari kalterik egin gabe, gai zehatzak garatzen dituzten protokolo eta prozedura espezifikoek arau operatibo nagusiak ezarri ahal izango dituzte aplikazio-eremuan, betiere Kode Etikoaren printzipioak eta bermeak errespetatzen badituzte.

3. Indarrean dauden Jokabide Kodeak
Etorkizunean arau-tresna berriak onartzea alde batera utzi gabe, Jokabide Kodeen sistemaren parte dira, gutxienez, honako hauek:

a) Jokabide Kode Orokorra.
b) Osotasun Ekonomikoaren arloko Jokabide Kodea.
c) Informazioaren eta Datu Pertsonalen Babesari buruzko Jokabide Kodea.
d) Jokabide Kode Digitala.

2 Konpromiso hau Integritate Politikorako eta Ustelkeriaren Prebentziorako Protokolo Integralaren bidez zehaztuko da.

4. Eremu materiala
Kode honek bertan sartuta dauden pertsona guztiei aplikatu beharreko jokabide-betebehar eta -debekuen esparru orokorra ezartzen du.

Aurrekoari kalterik egin gabe, gai espezifikoak hurrengo tituluetan aurreikusitako Jokabide Kode espezifikoen eta jarduera-eremu zehatzak arautzen dituzten barne-tresnen bidez garatuko dira.

Ondorio horietarako, honako protokolo, politika, gida, arau eta barne-prozedura hauek aplikatuko dira, bereziki:

a) Indarkeria matxistaren aurkako Protokoloa (IMAP).
b) Integritate Politikoko eta Ustelkeriaren Prebentzioko Protokoloa.
c) Betetze Arau-hauste Penaleko Protokoloa.
d) Informazioaren Segurtasunari buruzko Araudia (ISKS).
e) Laneko jazarpenaren prebentzio eta jarduketarako protokoloa.
f) Jabetza intelektualari buruzko politika.
g) Konfidentzialtasun-politika.
h) Gardentasun eta Kontrol Demokratikoaren Gida.
i) Informazioa eta Gorabeherak Kudeatzeko Prozedura.

5. Eguneratzea, komunikazioa eta ez-betetzea
Jokabide-kodeak organo eskudunek aldatu, eguneratu edo zabaldu ahal izango dituzte. Indarrean dauden bertsioak gaitutako barne-kanalen bidez jakinaraziko dira, eta, hala badagokio, gardentasun-atarian argitaratuko dira.

VI. Jokabide-kode orokorra

1. Xedea eta helburua
Jokabide-Kode Orokor honen helburua jokabide-jarraibide oinarrizkoak, operatiboak eta zuzenean eskatzeko modukoak ezartzea da, kargua, funtzioa, erantzukizuna edo lotura-mota edozein dela ere aplikatu beharrekoak.

Honako hauek dira haren helburuak:
a) Kode Etikoan jasotako printzipioak, balioak eta konpromiso publikoak modu eraginkorrean aplikatzen direla bermatzea, jarduteko betebehar argietan zehaztuz.
b) EH Bildun zintzotasunean, errespetuan, erantzukizunean eta gobernu onean oinarritutako kultura bat sustatzea.
c) EH Bilduri eta bere komunitatea osatzen duten pertsonei jarduteko esparru argi, homogeneo eta bermatzaile bat ematea, barneko eta kanpoko konfiantza indartuko duena.

2. Eskatzekoak diren betebehar orokorrak
2.1 Jardun arduratsu eta erantzukizuneko betebeharra
Kode honen mende dauden pertsonek honako hauek egin beharko dituzte:

a) Beren eginkizunak dedikazioz, gaitasunez eta arduraz betetzea.
b) Erakundearentzat edo hirugarrenentzat saihets daitekeen arriskua sortzen duten jokabideak saihestea.
c) Eremu bakoitzean aplikatu beharreko barne-prozedurak betetzea, ekonomikoak, digitalak, datuen babesa, zintzotasuna, interes-gatazkak prebenitzea eta aplikagarriak diren beste edozein barne.

2.2 Errespetuaren, bizikidetzaren eta diskriminaziorik ezaren betebeharra
Kode honen mende dauden pertsonek honako hauek egin beharko dituzte:

a) Tratu errespetuzkoa eta ez-diskriminatzailea izatea sexuagatik, genero-identitateagatik edo -adierazpenagatik, sexu-orientazioagatik, jatorriagatik, arrazagatik, hizkuntzagatik edo beste edozein inguruabar pertsonal edo sozialengatik.
b) Jokabide iraingarriak, larderiatsuak, etsaitasunezkoak, umiliagarriak edo degradatzaileak saihestea.
c) Indarkeriarik eta diskriminaziorik gabeko antolaketa-ingurune seguru, plural eta aske bat lortzen laguntzea.

Indarkeria- edo diskriminazio-egoeren aurrean jarduteko, indarrean dauden protokolo espezifikoak eta aplikatu beharreko araudia hartuko dira kontuan.

2.3 Egiazkotasunaren eta komunikazio-erantzukizunaren betebeharra
Kode honen mende dauden pertsonek honako hauek egin beharko dituzte:

a) Beren funtzioak betetzean eta EH Bilduri lotutako komunikazio publikoan egiazkotasunez jardutea, nahita informazio faltsua manipulatzea edo zabaltzea saihestuz.
b) Egiletza-esleipen bidegabeak saihestea eta talde-lana errespetatzea, Kode Etikoaren konpromiso publikoen arabera.
c) Zuhurtziaz eta arduraz jokatzea EH Bilduren konfiantzari, ospeari edo posizio publikoari eragin diezaioketen komunikazioetan.

2.4 Leialtasun instituzionalaren eta erakundea babestearen betebeharra
Honako hauek egin beharko dituzte eragindako pertsonek:

a) Interes orokorrarekiko eta proiektu kolektiboarekiko leialtasunez jardutea, erakundea helburu pribatu, partikular edo EH Bilduz bestelakoetarako baliatzea saihestuz.
b) EH Bilduren ospea babestea, Kode Etikoarekin eta eskatzen diren eredugarritasun-estandarrekin bat datozen jokabideen bidez.
c) Barneko edo kanpoko konfiantza larriki konprometitu dezaketen jokabideak ez hartzea, bereziki ordezkaritza-erantzukizunak daudenean.

2.5 Baliabideen erabilera arduratsuaren betebeharra
Honako hauek egin beharko dituzte eragindako pertsonek:

a) Baliabide publikoak, instituzionalak edo antolakuntzakoak EH Bilduren jarduerari lotutako legezko helburuetarako bakarrik erabiltzea.
b) Eremu bakoitzean ezarritako austeritate-, eraginkortasun-, kontrol-, trazabilitate- eta erantzukizun-irizpideetara egokitzea.

Gai hori bereziki arautuko dute Integritate Ekonomikoari buruzko Jokabide Kodeak eta aplikatu beharreko barne-protokoloek.

2.6 Oinarrizko konfidentzialtasun-betebeharra
Kode honen mende dauden pertsonek honako hauek egin beharko dituzte:

a) Beren kargua edo funtzioa dela-eta eskuratzen duten informazioaren konfidentzialtasuna gordetzea, bai eta esleitutako eginkizunen barruan beren karguaren ondorioz sor dezaketen informazioarena ere.

b) Bide ez-baimenduen bidez informazio konfidentziala edo sentikorra ez zabaltzea.
c) Betebehar horiek iraunkorrak izango dira.

Garapen espezifikoa Informazioaren eta Datu Pertsonalen Babesari buruzko Jokabide Kodean eta, hala badagokio, Jokabide Kode Digitalean jasota dago.

2.7 Independentziaren eta interes-gatazkak kudeatzearen betebeharra
Kode honen mende dauden pertsonek independentziaz, objektibotasunez eta leialtasunez jokatu beharko dute interes orokorrarekiko eta EH Bilduren proiektu kolektiboarekiko, interes pertsonalek, ekonomikoek, profesionalek, familiakoek edo hirugarrenenek beren funtzioak inpartzialtasunez betetzea baldintzatzea saihestuz.

Interes-gatazka egongo da pertsona baten interes pertsonalek, ekonomikoek edo profesionalek, edo haren senideenak, hurbilekoenak edo harreman handia duten entitateenak, eragina izan badezakete edo itxuraz eragina izan badezakete bere beren erantzukizunak, erabakiak edo jarduerak inpartzialtasunez betetzeko orduan.

Interes-gatazka izan daiteke:

a) Erreala, eragina benetan badago.
b) Ahalezkoa, zentzuz gauza badaiteke.
c) Itxurazkoa, kanpo-ikuspegi batetik erabaki edo jardueraren inpartzialtasuna zentzuz jar daitekeenean.

Interes-gatazka baten eraginpean dauden pertsonek berehala jakinarazi beharko diete organo eskudunei, eta dagokion eztabaidan, erabakian edo jardueran parte hartzeari uko egin beharko diote, aplikatu beharreko barne-araudiaren arabera organo eskudunak berariaz adierazten duenean izan ezik.

3. Debeku orokorrak
3.1 Indarkeriazko, diskriminaziozko edo iraingarrizko jokabideen debekua
Debekatuta dago honako hau dakarren edozein jokabide:

a) Indarkeria fisikoa edo hitzezkoa.
b) Jazarpena, larderia edo jokabide larderiatsuak.
c) Pertsonen diskriminazioa, tratu iraingarria edo duintasuna urratzea.
d) Jokabide iraingarriak, umiliagarriak edo ingurune antolatu seguru, plural eta errespetuzko batekin bateraezinak direnak.

3.2 Errepresalien debekua
Debekatuta dago errepresaliak hartzea, zuzenean edo zeharka, honako hau egiten duen edozein pertsonaren aurka:

a) Kontsulta edo komunikazio bat egitea Etika Kanalaren edo gaitutako kanalen bidez.
b) Lekuko gisa lankidetzan aritzea edo informazioa ematea barne-ikerketa batean.
c) Fede onez parte hartzea kontrol-, argitze- edo ikerketa-jardueretan.
Informatzailearen babesa bermatuko da, aplikatu beharreko araudiaren eta Etika Kanala kudeatzeko barne-sistemaren arabera.

3.3 Kontrolak eta ikerketak oztopatzearen debekua
Debekatuta dago:

a) Barneko edo kanpoko auditoretzak, kontrolak, egiaztapenak edo ikerketak oztopatzea edo zailtzea.
b) Ikerketa, kontrol edo prozedura baterako garrantzitsua den informazioa suntsitzea, ezkutatzea, manipulatzea edo faltsutzea.
c) Prozedura batean lekuko, eraginpeko edo parte-hartzaile diren pertsonengan behar ez bezala eragitea.

4. Osotasunaren eta betetzearen sistemarekin lankidetzan aritzeko betebeharra
Kode honen mende dauden pertsona guztiek fede onez lankidetzan aritu beharko dute:

a) Barneko kontrol- eta ikuskapen-mekanismoekin.
b) Organo eskudunek adostutako barne-ikerketa prozedurekin.
c) Sektoreko kodeetan edo aplikatu beharreko barne-protokoloetan aurreikusitako auditoretzekin, berrikuspenekin edo egiaztapenekin.

Lankidetza hori duintasuna, konfidentzialtasuna eta prozedurazko bermeak erabat errespetatuz egingo da.

5. Prozedura judizialetan inplikatuz gero nola jokatu, erantzukidetasuna eta bermeak
EH Bilduri lotutako pertsonek erakundearekiko koherentzia etikoz, erantzukizunez, leialtasunez eta erantzunkidetasunez jokatu beharko dute, prozedura judizialek eragin badiezaiekete, eta prozedura horiek garrantzi etikoa, instituzionala, hauteskundeetakoa, antolakuntzakoa edo osotasun publikokoa izan badezakete. Nolanahi ere, errugabetasun-presuntzioa, defentsa-eskubidea, prozedura-bermeak, datuen babesa eta oinarrizko eskubideak bermatuko dira.

5.1 Informazio garrantzitsua emateko betebeharra
Erantzukizun publikoak, organikoak, zuzendaritzakoak edo instituzionalak betetzen dituzten pertsonek zein hautesleek informazioa eman beharko dute, beren erantzukizunpean, honako hauei buruz: zigor penal irmoak, martxan dauden ikerketak, prozedura judizialak edo administrazio-prozedura zehatzaileak, eta bestelako inguruabar garrantzitsuak, erantzukizun publikoa betetzeko beharrezkoak diren konfiantza, eredugarritasuna, zintzotasuna edo egokitasun etikoa eragin dezaketenak.

Betebehar horrek barne hartzen ditu bai erantzukizuna eskuratu aurretik zeuden inguruabarrak, bai erantzukizuna betetzen den bitartean gertatzen direnak. Azken horiek berehala jakinarazi beharko zaizkie barne-organo eskudunei, bereziki Etika eta Betetze Batzordeari, Kode Etiko honen, barne-araudiaren, jarduera institucional edo elektoralaren, osotasun publikoaren edo EH Bildurekiko konfiantzaren ikuspegitik garrantzia izan dezaketenean.

Informazioa egiazkoa, nahikoa eta eguneratua izan beharko da, eta leialtasunez, erantzunkidetasunez eta erakundearekiko lankidetzaz emango da, defentsa-eskubidea eta aplikatu beharreko gainerako bermeak alde batera utzi gabe. Konfidentzialtasunez tratatuko da, eta banakako balorazioa egingo zaio, gertakarien izaera eta dagokion kargu edo funtzioaren erantzukizunak kontuan hartuta.

5.2 Barne-balorazioa
Aurreko ataletan aurreikusitako kasuetan, organo eskudunek egoera baloratuko dute, eragindako pertsonarekin hitz eginez, gertakarien izaera eta larritasuna, betetzen den edo bete behar den erantzukizunarekin duen lotura, konfiantza publikoan duen eragina, integritate instituzionala, eskatzen den eredugarritasuna, interes kolektiboa eta EH Bilduren proiektu politikoa kontuan hartuta.

Balorazio hori proportzionaltasunaren, erantzukizunaren, errugabetasun-presuntzioaren, entzunaldiaren, konfidentzialtasunaren, datuen babesaren eta oinarrizko eskubideen errespetuaren printzipioen arabera egingo da, eta Kode Etikoaren eta barneko araudi-sistemaren arabera egokiak diren antolaketa-, politika- edo prebentzio-neurriak proposatu ahal izango dira.

5.3 Itzultzea
Artxibatzearen, largestearen, absoluzioaren edo erantzukizunik ezaren kasuan, beharrezkoak eta proportzionatuak diren neurriak hartuko dira, hala badagokio, eragindako pertsonaren ospea, posizioa eta eskubideak erakundearen barruan itzultzeko.

6. Erabilera eta komunikatzeko betebeharra
Kode honen mende dauden pertsonek Etika Kanalaren edo gaitutako barne-kanalen bidez jakinarazi ahal izango dituzte, eta, hala badagokio, ezagutzen dituzten irregularTasunak, arriskuak edo ez-betetzeak, etikabatzordea@ehbildu.eus posta elektronikoa barne.

Komunikazioa egiazko informazioarekin, nahikoarekin eta, ahal den neurrian, dokumentatuarekin egin beharko da, barne-araudian aurreikusitakoaren arabera.

Honako hauek bermatuko dira:

a) Konfidentzialtasuna.
b) Errepresalien aurkako babesa.
c) Izapidetze arduratsua eta bermatzailea, indarrean dagoen barne-prozeduraren arabera.

VII. Osotasun ekonomikoaren arloko jokabide kodea.

Kode hau EH Bilduren integritate-sistemaren parte da eta bere Kode Etikoaren barruan kokatzen da. EH Bildurekin lotutako pertsonei aplikatzen zaizkien ekonomia-, ondare-, erakunde- eta ustelkeriaren prebentzio-arloko jokabideak arautzen ditu.

Bere helburua da jarduera zintzoa, gardena, neurritsua eta legezkotasunarekin bat datorrena bermatzea baliabideen kudeaketan, eragin ekonomikoa duten erabakietan eta erantzukizun publiko, instituzional, organiko edo ordezkaritzakoetan.

Bereziki aplikatzen zaie baliabideak kudeatzen dituztenei, erabaki ekonomikoak hartzen dituztenei, hirugarrenekin harremanetan daudenei edo erakunde- edo politika-ordezkaritzako eginkizunak betetzen dituztenei. Bereziki, hautatutako kargu publikoak, kargu organikoak, izendapen askeko karguak eta EH Bilduk erantzukizun publiko edo instituzionaletarako izendatu, proposatu edo babestutako pertsonak inspiratu eta behartzen ditu, baldin eta haien jardunak zuzenean edo zeharka EH Bilduren irudia, konfiantza edo erantzukizun politikoa proiektatu badezake.

Kode hau Integritate Politikoaren eta Ustelkeriaren Prebentzioaren Protokoloaren eta Ekonomia eta Finantza Arloko arauen eta jarraibideen bidez garatuko da.

1. Aplikazio-eremua
Kode hau nahitaez bete behar da Kode Etikoari atxikitzen zaizkion pertsona guztientzat, eta, bereziki, honako hauek:

a) Baliabide ekonomikoak edo ondarezkoak kudeatu, administratu edo zaintzen dituztenak.
b) Gastuak, ordainketak edo konpromiso ekonomikoak baimendu, gainbegiratu edo gauzatzen dituztenak.
c) Hornitzaileen, erakunde laguntzaileen edo hirugarrenen kontratazioan, hautaketan edo harremanetan parte hartzen dutenak.
d) Eragin ekonomikoa, antolamendukoa edo aurrekontukoa duten erabakiak hartzen parte hartzen dutenak.
e) Barne-kontrol, fiskalizazio edo auditoretzako eginkizunak betetzen dituztenak.
f) Enpresekiko, erakundeekiko, antolakundeekiko edo administrazio publikoekiko erakunde-harremanak, ekonomikoak edo ordezkaritza-harremanak dituztenak, bai beren eginkizunak betetzean, bai EH Bildurekin lotutako jarduerak garatzean, karguagatik edo pertsonaren garrantzi publikoagatik erabakiak hartzean eragin dezaketen edo eragingarritzat har daitezkeen harreman pertsonalak barne.

Nolanahi ere, kargu publiko eta organikoak, langileak edo liberatuak, izendapen askeko karguak, talde institucionaletan integratutako pertsonak eta EH Bilduk esparru publikoarekin lotutako erantzukizun publiko, instituzional edo erakundeetan aritzeko izendatu, proposatu edo babestutako pertsonak barne hartzen ditu, baldin eta haien jardunak eraginik izan badezake kudeaketa ekonomikoan, ustelkeriaren prebentzioan, konfiantza publikoan edo EH Bilduren irudi politikoan.

2. Ekonomia-kudeaketaren eta integritatearen printzipioak
EH Bilduren ekonomia-kudeaketa eta eragin ekonomikoa duten erabakiak hartzea jarraian azaltzen diren printzipioen arabera arautuko dira. Printzipio horiek, ekonomia-kudeaketaren eremuan, Kode Etikoan jasotako printzipio eta balio orokorrak zehazten dituzte:

a) Legezkotasuna; indarrean dagoen araudiaren arabera jardunez, bereziki alderdi politikoen finantzaketaren, kontabilitatearen eta gardentasunaren arloan.
b) Gardentasuna; barneko eta kanpoko kontu-ematea bermatuz.
c) Neurritasuna eta eraginkortasuna; alferrikako gastuak saihestuz eta baliabide kolektiboen erabilera optimizatuz.
d) Erantzukizuna eta trazabilitatea; eragiketa ekonomiko guztien erregistroa, kontrola eta justifikazioa ziurtatuz.
e) Funtzioen bereizketa; botere ekonomikoaren edo erabaki-boterearen kontzentrazio bidegabeak saihestuz.
f) Integritatea eta objektibotasuna; interes pertsonalik edo eragin bidegaberik gabeko erabakiak hartuz.

3. Baliabide ekonomiko eta materialen kudeaketa
EH Bilduren baliabide ekonomikoek honako hauek egin beharko dituzte:

a) Helburu politiko, organiko, instituzional edo elektoral legitimoetarako soilik erabili.
b) Onartutako aurrekontuen eta barne-prozeduren arabera kudeatu.
c) Behar bezala erregistratuta, dokumentatuta eta justifikatuta geratu, trazabilitatea bermatuz.
d) Erantzukizun-, neurritasun- eta kontrol-irizpideen arabera administratu.

4. Diru-sarrerak eta finantzaketa
Diru-sarrerak honela lortuko dira:

a) Indarrean dagoen legeriaren arabera, bereziki alderdi politikoen finantzaketari buruzkoa.
b) Jatorri ez-zilegiko, opakuko edo justifikatu gabeko diru-sarrera oro baztertuz.

c) EH Bilduren independentzia politikoa konprometitu edo interes-gatazkak sor ditzaketen dohaintzak edo finantzaketa-mekanismoak saihestuz.
d) Eragiketa ekonomiko oro identifikatu, dokumentatu eta trazatu ahal izango dela bermatuz, jatorritik kontabilitate-erregistroraino.

5. Gastuak eta baliabideen erabilera
EH Bildurekin lotutako pertsona guztiek, erakundearekin lotutako eginkizunak, erantzukizunak edo jarduerak betetzean, baliabideak eta, hala badagokio, baliabide publikoak eta jarduera instituzionalari edo antolakuntzakoari lotutako gastuak erabili beharko dituzte, austeritate-, moderazio- eta pribilegiorik gabeko irizpideen arabera, eta, nolanahi ere, luxuzko tratamenduak edo herritarrekiko abantaila bereiziak dakartzatenak saihestuz.

Bereziki, ordezkaritza instituzionala gauzatzean, printzipio horiek zorroztasun bereziz bete beharko dira.

Gastu oro honela egin beharko da:

a) Benetako beharrizan bati, bidezko beharrizan bati eta justifikatutako beharrizan bati erantzun.
b) Dagokion baimena izan, barne-prozeduren arabera.
c) Behar bezala dokumentatuta eta erregistratuta egon.
d) Austeritate-, proportzionaltasun- eta eraginkortasun-irizpideetara egokitu.

EH Bilduk eskura jarritako txartel korporatiboen, erregai-txartelen, zerbitzu-txartelen edo beste edozein ordainketa-bideren erabilera Ekonomia eta Finantza Arloak ezarritako irizpide, jarraibide eta mugei jarraiki egingo da, eta dagokion jarduera politikoarekin lotutako helburuetarako soilik erabili beharko dira.

6. Kontratazioa eta hornitzaileak
Bereziki:

a) Interes pertsonal, familiar edo ekonomikoekin lotutako erakundeekiko edozein faboritismo edo kontratazio saihestuko da, legez baimendutako kasuetan eta behar bezala justifikatutakoetan izan ezik.
b) EH Bilduk defendatzen dituen printzipio etiko, sozial eta politikoak errespetatuko dira.
c) Kontratazioa organo eskudunek onartutako prozedura, irizpide eta jarraibideen arabera egingo da, bereziki Ekonomia eta Finantza Arloaren arabera, aplikatzekoa den lege-araudiari kalterik egin gabe.

7. Ekarpen ekonomikoekiko konpromisoa
Kode honen ondorioetarako, ekarpen ekonomikoen banakako konpromisotzat joko da EH Bilduri lotutako zenbait pertsonak proiektu kolektiboaren iraunkortasun ekonomikoa bermatzeko diru-ekarpenak egiteko hartzen duten konpromiso politiko eta antolakuntzakoa.

Konpromiso hori, bereziki, kargu publikoak edo organikoak dituztenei, EH Bilduren esparruan ordainsaria jasotzen duten erantzukizunak betetzen dituztenei edo haren talde instituzionaletako kide direnei egokitu ahal izango zaie, eta erakundea gidatzen duten erantzukidetasunaren, ekitatearen, proportzionaltasunaren eta konpromiso kolektiboaren printzipioen barruan ulertuko da.

EH Bilduk, autogestioan eta konpromiso kolektiboan oinarritutako ezkerreko eta independentziaren aldeko erakunde politiko gisa, ekarpen horiek ulertzen ditu hartutako erantzukizun publiko, organiko, instituzional edo profesionalaren eta partekatutako proiektu politikoaren arteko koherentziaren adierazpen gisa.

Apartatu honetan araututako ekarpenek Kode honetatik eratorritako konpromiso etiko eta antolakuntzakoa osatzen dute, eta Proiektu Kolektiboaren Iraunkortasunerako Ekarpen Konpromisoaren Eranskina sinatuz formalizatuko dira.

Eranskinak konpromisoa onartzeko baldintzak garatuko ditu. Ekarpenak zehazteko irizpideak, haien zenbatekoak, kalkulu-modalitateak, eguneratzea eta kudeaketari buruzko gainerako alderdiak EH Bilduko organo eskudunek ezarriko dituzte, aplikatu beharreko barne-akordio eta jarraibideen bidez, betiere ekitatearen, proportzionaltasunaren eta barne-koherentziaren printzipioak bermatuz.

Konpromiso hori hartzen duten pertsonek Eranskinean eta hura garatzen duten antolakuntza-tresnetan ezarritako baldintzak, prozedurak eta betebeharrak bete beharko dituzte.

Gardentasuna, trazabilitatea, kontabilitate-kudeaketa egokia eta alderdi politikoen finantzaketari buruzko araudia betetzen dela bermatzeko, Ekonomia eta Finantza Arloak ekarpen horien kudeaketari buruzko antolakuntza- eta teknika-irizpideak ezarriko ditu, eta, hala badagokio, honako hauek zehaztuko ditu besteak beste:

a) Ekarpen-oinarriak zehazteko irizpideak.
b) Ekarpen-modalitateak.
c) Kalkulu-, komunikazio- eta erregistro-prozedurak.
d) Administrazio- eta kontabilitate-kudeaketarako mekanismoak.

Ekarpen horiek, nolanahi ere, pertsona ekarpen-egilearen identifikazio egokia, funtsen trazabilitatea eta haien kontabilizazio zuzena bermatuko dituzten mekanismoen bidez egingo dira.

Eranskinean eta hura garatzen duten tresnetan hartutako konpromisoak ez betetzea Kode honen eta EH Bilduren barne-araudiaren arabera baloratu ahal izango da, proportzionaltasunaren, erantzukizunaren eta erakundearen printzipioekiko koherentziaren irizpideak kontuan hartuta.

Kudeaketa errazteko eta zalantzak argitzeko, EH Bilduri lotutako pertsonek Ekonomia eta Finantza Arlora jo ahal izango dute honako helbide elektroniko honen bidez: pertsonenkudeaketa@ehbildu.eus.

8. Interes-gatazkak

Kode honen mende dauden pertsonek independentziaz, objektibotasunez eta interes orokorrarekiko eta EH Bilduren proiektu kolektiboarekiko leialtasun osoz jokatu beharko dute uneoro.

Interes-gatazka egongo da pertsona baten interes pertsonalek, ekonomikoek edo profesionalek, edo haren familiakoek, hurbilekoek edo harreman garrantzitsua duten erakundeek, beren eginkizunak inpartzialtasunez betetzean eragin dezaketenean edo eragin dezaketela dirudienean.

Gatazka honelakoa izan daiteke:

a) Erreala, eragina benetan dagoenean.
b) Potentziala, zentzuz gauzatu daitekeenean.
c) Itxurazkoa, kanpoko ikuspegi batetik erabakiaren inpartzialtasuna zalantzan jar daitekeenean.

9. Abstentzio-betebeharra eta adierazpena
Benetako, potentzial edo ageriko interes-gatazka bat dagoenean, eragindako pertsonak honako hauek egin beharko ditu:

a) Egoera aldez aurretik jakinaraztea organo eskudunari;
b) Dagokion erabakian parte hartzeari, esku hartzeari, eztabaidatzeari edo bozkatzeari uko egitea, edo horietatik abstenitzea;
c) Balorazioa egiteko behar den informazioa ematea.

Zalantza arrazoituren bat izanez gero, prebentzio-irizpidea aplikatuko da, abstentzioa lehenetsiz, jarduteko modua zehaztu arte.

10. Interes-gatazkarik ezaren adierazpena (IGEA)
Bidezkoa denean, EH Bilduk Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA) aurkezteko eskatu ahal izango du:

a) zenbait erantzukizun eskuratu aurretik;
b) erabaki garrantzitsuak hartu aurretik edo ondoren.

Kode hau onartzeak, nolanahi ere, interes-gatazkarik ezaren adierazpen orokorraren balioa izango du, sor litekeen gatazka zehatz oro adierazteko betebehar iraunkorrari kalterik egin gabe.

11. Opariak, pizgarriak eta bidegabeko abantailak
Debekatuta dago zuzenean edo zeharka onartzea:

a) Jardunaren inpartzialtasuna konprometitu dezaketen edo konprometitu dezaketela diruditen opariak;
b) Onura pertsonalak, abantailak edo pizgarriak;
c) Mendekotasuna edo eragin bidegabearen itxura sortzen duten gonbidapenak edo onurak;
d) Hirugarren pertsonen edo erakunde bitartekarien bidez zeharkako onurak;
e) Erregistratu gabeko abantailak, trazabilitate- edo barne-kontrolerako betebeharra dagoenean.

12. Berariazko debekuak
Berariaz debekatuta dago:

a) Baliabide ekonomikoak edo materialak helburu pertsonaletarako edo erakundetik kanpokoetarako erabiltzea;
b) Bidegabeko komisioak edo onura ekonomikoak onartzea, eskatzea edo eskaintzea;
c) Abantailak bitarteko pertsonen edo erakundeen bidez bideratzea, kontrolak saihesteko;
d) Gastuak zatitzea edo eragiketak manipulatzea, kontrol-mekanismoak saihesteko;
e) Informazio ekonomikoa, finantzarioa edo kontabilitatekoa ezkutatzea, faltsutzea edo aldatzea;
f) Pertsona beraren, haren familia-ingurunearen edo lotutako erakundeen onura ekonomiko zuzena edo zeharkakoa sor dezaketen erabakietan esku hartzea.

13. Kortesia instituzionaleko arretak
Irizpide orokor gisa, eta 11. atalean ezarritakoaren arabera, Kode honen mende dauden pertsonek ez dute onartuko beren erantzukizunak inpartzialtasunez betetzea baldintzatu dezaketen edo baldintzatu dezaketela diruditen oparirik, pizgarririk, bidegabeko abantailarik edo onurarik.

Kortesia instituzionalagatik eta ohiko gizarte-usadioen arabera, presente bat ezin izan bada baztertu unean bertan, eragindako pertsonak horren berri eman eta Etika eta Betetze Batzordeari kontsultatu beharko dio, Integritate Politikoaren eta Ustelkeriaren Prebentzioaren Protokoloan ezarritako irizpideen arabera eta batzorde horrek, hala badagokio, zehazten dituen jarraibideen arabera jokatuz.

14. Barne-kontrola, auditoretzak eta lankidetzarako betebeharra
Kode honen mende dauden pertsonek aktiboki lagundu beharko dute:

a) Barne-kontrolerako mekanismoak;
b) Auditoretza ekonomikoak edo finantzarioak;
c) Kudeaketa ekonomikoarekin edo integritate instituzionalarekin lotutako barneko edo kanpoko ikerketak.

15. Ez-egitea, gertakariak eta Etika Kanala
Kudeaketa ekonomikoarekin, interes-gatazkekin edo balizko praktika ustelkeriarekin lotutako edozein irregulartasun, zalantza edo gertakari Etika Kanalaren edo gaitutako barne-mekanismoen bidez jakinarazi beharko da.

Konfidentzialtasuna eta errepresalien aurreko babesa bermatuko dira, Integritate Politikoaren eta Ustelkeriaren Prebentzioaren Barne Protokoloan ezarritakoaren arabera.

Ezagutzen diren irregulartasun ekonomikoak edo gatazka-egoerak berariaz ez jakinaraztea Kode honen eta Kode Etikoaren ez-betetzetzat jo ahal izango da, aplikatzekoa den araudiaren arabera sor daitezkeen administrazio-, zibil- edo zigor-erantzukizunei kalterik egin gabe.

VIII. Informazioa eta datu pertsonalak babesteko jokabide-kodea

EH Bildun informazioaren eta datu pertsonalen babesa, erabilera eta tratamendua ezartzen du.

Horren helburua da informazioaren eta datu pertsonalen kudeaketa segurua, arduratsua eta indarrean dagoen araudiarekin bat datorrena sustatzea, informazioaren konfidentzialtasuna, integritatea eta eskuragarritasuna indartuz, bai eta datuen tratamenduan konfiantza ere.

Gailuak, sistemak eta bitarteko digitalak erabiltzeari buruzko neurriak Jokabide Kode Digitalean xedatutakoaren arabera arautuko dira.

1. Aplikazio-eremua
Kode hau nahitaez bete beharko dute EH Bilduri lotutako pertsona guztiek, baldin eta, beren kargua, funtzioa edo erakundearekiko harremana dela-eta, informazioa edo datu pertsonalak eskuratzen badituzte, baimendutako harreman baten esparruan EH Bilduren informazioa eskuratzen duten hornitzaileak edo hirugarrenak barne.

2. Informazioaren izaera eta titulartasuna
EH Bilduren jardueraren esparruan sortutako informazioak:

a) izaera organizatiboa izango du;
b) erakundeak kudeatuko du, segurtasunaren, konfidentzialtasunaren, integritatearen eta eskuragarritasunaren barne-irizpideen arabera;
c) baimendutako helburuetarako bakarrik erabili ahal izango da.
Konfidentzialtasun-betebeharrak iraun egingo du erakundearekiko harremana amaitu ondoren ere.

3. Tratamendu-printzipioak
Datu-tratamendua honako printzipio hauen arabera arautuko da:

a) zilegitasuna, leialtasuna eta gardentasuna;
b) helburua mugatzea;
c) datuak minimizatzea;
d) zehaztasuna;
e) kontserbazio-epea mugatzea;
f) integritatea eta konfidentzialtasuna;
g) erantzukizun proaktiboa.

4. Datuen gaineko pertsonen eskubideak
EH Bilduk tratatutako datuak dituzten pertsonek eskubide hauek dituzte

a) Beren datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazio argia, gardena eta eskuragarria jasotzeko.
b) Dagokionean, aplikatu beharreko araudiaren arabera, beren eskubide eta askatasunei eragin diezaieketen datuen segurtasun-urraketen berri emateko.
c) Beren datuak pribatutasuna erabat errespetatuz, datuen babeserako araudia eta oinarrizko eskubideak betez tratatuak izateko.
d) Datuen babesaren arloan aplikatu beharreko araudiak aitortzen dizkien eskubide eta ekintzak baliatzeko.

5. Konfidentzialtasunaren eta informazioaren babesaren betebeharrak
Kode honen mende dauden pertsonek honako hauek egin beharko dituzte:

a) Behar bezala zaintzea eskura dituzten informazioa eta datu pertsonalak, edozein euskarritan.
b) Sekretua eta konfidentzialtasuna gordetzea EH Bilduren barne-informazio guztiari buruz, kargua, erantzukizuna, funtzioa edo organoetan, lantaldetan edo barne-prozesuetan parte hartzea dela-eta eskuratzen dena, izaera publikoa duen informazioa edo dagozkion bideetatik ofizialki jakinarazi den dokumentazioa izan ezik, betebehar hori betiko konpromisotzat ulertuta.
c) Informazio konfidentziala edo datu pertsonalak ez zabaltzea edo ez erabiltzea EH Bilduz bestelako helburuetarako.
d) Gailuak, euskarriak eta sarbide-egiaztagiriak babestea.
e) Informazioa ez kopiatzea, biltegiratzea edo transmititzea baimendutako kanalez kanpo.
f) Ez argitaratu informazio konfidentzial edo sentikorrik Interneten, sare sozialetan edo baimendu gabeko beste edozein bitartekotan.
g) EH Bilduren barne-protokoloak eta jarraibide teknikoak betetzea.

6. Datu pertsonalen tratamendua
a) Datu pertsonalen tratamendu oro EH Bilduren ardurapean egingo da, eta indarrean dagoen araudiaren arabera.
b) Tratamenduak sortzeko, aldatzeko edo ezabatzeko baimena beharko da.
c) Debekatuta dago datu pertsonalak baimendutakoez bestelako helburuetarako erabiltzea.
d) EH Bilduk bermatuko du eragindako pertsonen eskubideak modu eraginkorrean baliatzea.

7. Segurtasun-gorabeherak eta -urraketak
Gorabeheratzat hartuko da informazioa edo datu pertsonalak galtzea, aldatzea, behar ez bezala zabaltzea edo baimenik gabe eskuratzea.

Gorabehera oro atzerapenik gabe jakinarazi beharko da, gaitutako kanalen bidez.

Hala dagokionean, EH Bilduk segurtasun-urraketak jakinaraziko dizkio kontrol-agintaritzari, aplikatu beharreko araudiak aurreikusitako epean.

8. Kontrolak eta auditoretzak
EH Bilduk kontrolak eta auditoretzak egiten ditu, Kode hau eta aplikatu beharreko araudia betetzen direla ziurtatzeko, eta, une oro, beharrizanaren, proportzionaltasunaren, konfidentzialtasunaren eta pertsonen duintasunaren printzipioak errespetatzen direla bermatzen du.

IX. Jokabide-kode digitala

EH Bilduk eskura jarritako sistema informatikoen, telekomunikazio-sistemen eta baliabide digitalen erabilerari aplikatu beharreko eskubideen, betebeharren eta bermeen esparrua ezartzen du.

Horren helburua da erabilera arduratsua, segurua eta erakundearen balio etiko eta arauemaileekin bat datorrena sustatzea, informazioaren babesa, sistemen funtzionamendu egokia eta ingurune digitalean konfiantza indartuz.

Informazioaren eta datu pertsonalen tratamenduari buruzko betebeharrak berariaz garatzen dira Informazioa eta Datu Pertsonalak Babesteko Jokabide Kodean.

1. Aplikazio-eremua
Kode hau nahitaez bete beharko dute EH Bilduri lotutako pertsona guztiek, baldin eta honako hauek erabiltzen badituzte, sarbidea badute edo honako hauetako bat erabiltzen badute:

a) sistema informatikoak eta telekomunikazio-sistemak;
b) gailu elektroniko korporatiboak;
c) posta elektroniko korporatiboko kontuak;
d) erakundearen sare sozialak eta kanal digitalak;
e) EH Bilduk edo haren ordezkaritzan erantzukizunak betetzen dituzten erakundeek eskura jarritako beste edozein baliabide digital.

2. Bitarteko digitalen izaera
EH Bilduk eskura jarritako bitarteko digitalak:

a) Erakundearen jabetzakoak dira.
b) EH Bilduren jarduerari lotutako helburu profesionaletarako, organikoetarako, instituzionaletarako edo politikoetarako baino ez dira erabiltzen.
c) Ez dute erabilera pertsonal mugagabearen edo konfidentzialtasun absolutuaren itxaropenik sortzen, oinarrizko eskubideak eta aplikatu beharreko araudian aurreikusitako bermeak errespetatzea alde batera utzi gabe.

EH Bilduren baliabidetzat hartuko dira erakundeak edo haren ordezkaritzan erantzukizunak betetzen dituzten erakunde publikoek eskura jarritako baliabide teknologiko, informazio-sistema, gailu, kontu digital edo plataforma guztiak, legebiltzar-taldeei, batzar-taldeei edo udal-taldeei esleitutakoak barne.

Baliabide horiek ez dira pertsonalak izango, eta ez dira erabiltzen duen karguaren banakako titulartasunari lotuta egongo.

3. Informazioaren Segurtasunari buruzko Araudiarekiko (ISKS) harremana
Sistema digitalen erabilera, gainera, erakundeak onartutako Informazioaren Segurtasunari buruzko Araudiak (ISKS) arautuko du. Araudi horrek informazio-sistemei aplikatu beharreko neurri teknikoak, protokolo operatiboak eta kontrolak ezartzen ditu.

Kode honen mende dauden pertsona guztiek ezagutu, errespetatu eta bete egin beharko dute araudi hori, eta ez jakiteak ez ditu salbuetsiko erantzukizunetik.

4. Erabiltzeko printzipio orokorrak
Bitarteko digitalen erabilera honako printzipio hauen arabera arautuko da:

a) informazioaren segurtasuna;
b) baliabideen erabileran erantzukizuna eta proportzionaltasuna;
c) duintasunarekiko, intimitatearekiko eta oinarrizko eskubideekiko errespetua;
d) aplikatu beharreko barne- eta kanpo-araudia betetzea.

5. Erabiltzaileen eskubideak
EH Bilduren bitarteko digitalen erabiltzaileek eskubide hauek dituzte:

a) erabilera-arauak eta dauden kontrolak jakinaraztea;
b) beren duintasun pertsonala errespetatzea eta intimitate digital mugatua izatea, aplikatu beharreko araudiaren arabera;
c) deskonexio digitala egiteko eskubidea, indarrean dagoen legeriak ezarritako baldintzetan;
d) komunikazioen konfidentzialtasuna, aplikatu beharreko araudian aurreikusitako kasuetan izan ezik.

6. Erabiltzaileen betebeharrak
Erabiltzaileek honako hauek egin beharko dituzte:

a) bitarteko digitalak baimendutako helburuetarako bakarrik erabiltzea;
b) gailuak, egiaztagiriak eta sarbideak arretaz zaintzea;
c) baimendu gabeko softwarea edo gailuak ez instalatzea;
d) sarbide-egiaztagiriak ez partekatzea;
e) segurtasun-gorabehera oro berehala jakinaraztea;
f) Kode hau, Kode Etikoa eta Informazioaren Segurtasunari buruzko Araudia (ISKS) betetzea.

7. EH Bilduren kontrolen irismena
EH Bilduk sistema digitalen erabilerari buruzko kontrol proportzionalak egin ahal izango ditu, honako helburu hauekin:

a) sistemen funtzionamendu egokia bermatzea;
b) erabilera desegokiak prebenitzea;
c) gorabehera larriak ikertzea;
d) legezko betebeharrak betetzea.
Kontrol horiek beharrizanaren, proportzionaltasunaren, konfidentzialtasunaren eta pertsonen duintasunaren printzipioak errespetatuz egingo dira.

8. Betetze-auditoriak
EH Bilduk aldizkako edo ezohiko auditoriak egin ahal izango ditu sistema digitalen, baliabide teknologikoen eta posta korporatiboen erabilerari buruz, irregulartasunak prebenitzeko eta detektatzeko, Kode Etikoaren

edo Kode honen balizko ez-betetzeak ikertzeko eta EH Bilduren informazioaren segurtasuna, baliabide kolektiboak eta legezko interesak babesteko.

Auditoriak barne-araudiaren arabera eskumena duten organoek adostuko dituzte, behar bezala dokumentatuko dira eta aplikatu beharreko araudia eta eragindako pertsonen eskubide eta bermeak erabat errespetatuz egingo dira.

9. Posta elektroniko korporatiboaren erabilera
Posta elektroniko korporatiboa:

a) baliabide organikoa da;
b) EH Bilduri lotutako eginkizunetarako bakarrik erabiliko da;
c) ezin izango da helburu pertsonaletarako edo erakundetik kanpokoetarako erabili, baimendutako erabilera hondarretarako izan ezik.

10. Interneten eta beste baliabide digital batzuen erabilera
Interneten sarbideak helburu profesionala edo organikoa izango du.

Debekatuta dago:
a) legez kanpoko edo iraingarriak diren edukietara sartzea;
b) sistemen segurtasuna arriskuan jar dezaketen jarduerak egitea.

11. Sare sozialak eta kanal digitalak
EH Bilduren jarduerarako ofizialki sortu edo erabilitako sare sozialetako kontuak, orriak, profilak edo kanal digitalak, haren organoak, talde instituzionalak, kanpainak, hautagaitzak edo antolaketa-erantzukizunak barne, izaera organikoa izango dute, eta EH Bilduri lotutzat joko dira.

Kontu horiek, ahal den guztietan, posta elektroniko korporatiboen edo baimendutako kanalen bidez sortu beharko dira, eta haietara sartzeko datuak organo eskudunen eskura egon beharko dira, ezarritako barne-irizpideen arabera.

Antolaketako Idazkaritzak EH Bilduren jarduerarekin ofizialki lotutako kontuen, profilen edo kanal digitalen erregistro zentralizatua izan ahal izango du, eta beharrezko informazioa eskatu ahal izango du haien jarraipena, segurtasuna, antolaketa-kontrola eta kudeaketa egokia bermatzeko.

Kontu pertsonalek ez dute EH Bilduren jabetzakoak izango EH Bilduko kide diren pertsonenak izate hutsagatik. Hala ere, modu ohikoan edo garrantzitsuan erabiltzen direnean EH Bilduri lotutako eduki politikoak, instituzionalak, elektoralak edo antolakuntzakoak zabaltzeko, erabilera Kode Etiko honetan eta aplikatu beharreko barne-protokoloetan aurreikusitako erantzukizun-, zuhurtzia-, segurtasun-, koherentzia komunikatibo- eta erakundea babesteko jarraibideetara egokitu beharko da.

Aurreikuspen hori bereziki aplikatuko zaie kargu publikoagatik edo organikoagatik, hautagaitzagatik, erakunde-erantzukizunagatik, bozeramailetzagatik edo proiekzio publiko bereziagatik EH Bilduren erreferentzia publikotzat zentzuz har daitezkeen kontu pertsonalei.

12. Gorabeherak eta salaketak
Erabiltzaile orok berehala jakinarazi beharko du segurtasun digitalarekin zerikusia duen edozein gorabehera, gaitutako kanalen bidez edo Kode Etikoan aurreikusitako barne-sistemaren bidez.

X. Kode etikoaren konpromisoen onarpena, irismena eta erregistroa

1. Atxikipenaren irismen orokorra
Kode Etiko hau sinatzeak EH Bilduren printzipioak eta balioak berariaz onartzea dakar, baita bertan jasotako jokabide-arauak eta sinatzaileari aplikatu beharreko barne-araudi-sistema ere, bere karguaren, eginkizunaren, erantzukizunaren edo erakundearekiko harremanaren arabera.

Onarpen horrek, aplikagarriak diren neurrian, EH Bilduren etika- eta betetze-sistema osatzen duten printzipio, balio, konpromiso, jokabide-kode, arau, protokolo, eranskin eta barne-tresna guztiak barne hartzen ditu.

Onarpenak EH Bildurekin lotutako pertsonaren harreman osoan izango ditu ondorioak, eta Kode Etikotik eratorritako betebehar orokorrak zein une bakoitzean hartutako erantzukizunen arabera dagozkion berariazko edo indartutako betebeharrak barne hartuko ditu.

Sinatzaileak onartzen du, halaber, Kode Etikotik eratorritako konpromisoak ez betetzeak barne-araudian aurreikusitako jarraipen-, balorazio- eta erantzukizunak eskatzeko barne-mekanismoak aktibatzea ekar dezakeela.

2. Kargu publiko, organiko eta erantzukizun instituzionaletarako betebehar indartuak
Kargu publikoak, kargu organikoak, erantzukizun instituzionalak, ordezkaritza-funtzioak edo izendapen askeko karguak dituzten pertsonak eredugarritasun-, arreta-, gardentasun-, erantzukizun- eta koherentzia-estandar indartuen mende egongo dira Kode Etikoaren printzipioekin, beren funtzioen garrantzi publiko, politiko, instituzional edo antolamenduzkoarekin bat etorriz.

Eskatzen den eredugarritasunak jokabide zintzoa, arduratsua eta Kode Etikoaren printzipioekin bat datorrena izatea dakar, bai beren funtzioak betetzean, bai EH Bilduren irudiari, sinesgarritasunari, integritateari edo konfiantza publikoari eragin diezaioketen jardueretan.

Era berean, pertsona horiek gardentasun- eta komunikazio-betebehar indartuak bete beharko dituzte egoera garrantzitsuen aurrean, eta etika- eta betetze-sistemaren organo eskudunek hartzen dituzten erabakien eta neurrien mende geratuko dira, erantzukizun politikoak edo antolakuntzakoak eskatzeko aukera barne.

Bereziki, berehala jakinarazi beharko diete barne-organo eskudunei EH Bildurentzat etikaren, erakundearen, hauteskundearen, antolaketaren edo konfiantza publikoaren arloan garrantzia izan dezaketen prozedura judizialetan inplikatuta daudenean, eta informazio egiazkoa, nahikoa eta eguneratua emango dute, egoera baloratzeko eta, hala badagokio, prebentziozko, antolakuntzako edo politika-neurri proportzionatuak hartzeko behar den neurrian, errugabetasun-presuntzioa, defentsa-eskubidea, intimitatea, datu pertsonalen babesa eta aplikatu beharreko gainerako bermeak erabat errespetatuz.

3. Atxikimenduaren formalizazioa, erregistroa eta artxiboa
Kode Etikoari atxikitzea dagokion atxikipen-dokumentua sinatuz formalizatuko da, eta horrek Kode Etikoaren bertsio osoa eta dibulgaziozkoa berariaz onartzea ekarriko du.

EH Bilduk atxikipenen barne-erregistro bat egingo du, eta sinatutako dokumentuak gordeko ditu, formatu fisikoan edo digitalean, Kodearen onarpena, atxikitze-data, sinatzailearen nortasuna eta hartutako konpromisoen irismena egiaztatzeko.

Atxikipenen erregistroa eta artxiboa segurtasun-, konfidentzialtasun-, trazabilitate- eta datu pertsonalen babes-irizpideen arabera egingo da.

XI. Kode etikoaren arauak

Arau hauek Informazioaren eta Intzidentzien Kudeaketa Prozedurarekin bat etorriz landu dira. Prozedura hori da EH Bildun komunikazioak eta ez-betetzeak izapidetzeko esparru orokorra.

1. ARTIKULUA: APLIKAZIO-EREMU SUBJEKTIBOA

1. Kode Etiko hau EH Bilduko komunitate antolatuari aplikatuko zaio eta espresuki lotuko ditu honako pertsona hauek:

a) Pertsona afiliatuak —Bilkide—.
b) Kargu organikoak dituzten pertsonak.
c) Kargu publikoak, hautatuak edo izendapen askekoak dituzten pertsonak, EH Bilduren ordezkaritzan edo proposamenez.
d) Erakundearekin lotutako langileak, liberatuak edo kontratatuak.
e) EH Bilduk sustatutako zerrenda edo hautagaitzetako kideak.

2. Aurreko atalean jasotako pertsonak Kode Etiko hau osorik betetzera behartuta egongo dira, bertan aurreikusitako baldintzetan eta, hala badagokio, dagokion konpromiso etikoa onartuz edo sinatuz.

2. ARTIKULUA: ERANTZUKIZUN ETIKOA KARGUAREN EDO FUNTZIOAREN ARABERA

Kode Etiko honetatik eratorritako erantzukizun etikoa karguaren, funtzioaren edo pertsona bakoitzak EH Bildurekin duen harremanaren izaeraren arabera ulertuko da, bai eta haren garrantzi publiko, politiko, instituzional, antolamenduzko edo ordezkaritzakoaren arabera ere.

Ondorio horietarako, bereziki kontuan hartuko da pertsonak kargu publikoa, kargu organikoa, erakunde-erantzukizuna, ordezkaritza-funtzioa, izendapen askeko kargua, erakunde-talde bateko kide izatea, lan-harremana edo Bilkide izaera duen.

Irizpide horien aplikazioa proportzionaltasunaren, karguaren edo betetzen den funtzioaren araberako erantzukizun egokiaren, behar besteko motibazioaren eta EH Bilduren barne-araudi sistemarekiko koherentziaren printzipioek gidatuko dute.

3. ARTIKULUA: KARGUEN KONKURRENTZIA

Pertsona batek EH Bilduren barruan aldi berean kargu bat baino gehiago baditu —kargu publikoak, kargu organikoak, erakunde-erantzukizunak, erakunde-taldeetako parte-hartzea, ordezkaritza-funtzioak edo afiliazio-izaera barne—, balizko ez-betetze etikoa modu bateratuan baloratuko da.

Etika eta Betetze Batzordeak erreferentziazko kargua edo erantzukizuna zehaztuko du, garrantzi publiko, politiko, instituzional edo antolamenduzko handiena duen funtzioaren arabera.

Kargu publiko bat beste erantzukizun batzuekin batera gertatzen denean, kargu horren garrantzi publiko eta instituzionalari erreparatuko zaio bereziki.

Kargu bati dagokionez hartutako neurriak kontuan hartu beharko dira, gertakari berdinengatik prozedura edo neurri bikoitzak izatea saihesteko; hala ere, neurri gehigarriak hartu ahal izango dira, beste erantzukizun batzuk direla-eta beharrezkoak eta proportzionatuak badira.

4. ARTIKULUA: ETIKA ETA BETETZE BATZORDEA

Etika eta Betetze Batzordea (EKB) EH Bilduren osotasun- eta betetze-sistemaren jarraipenaz arduratzen den barne-organoa da.

Kode honen eremuan, Kode Etikoaren eta Jokabide Kodeen balizko urraketak ezagutzea, koordinatzea, instruitzea eta baloratzea dagokio, bai eta dagokion txosten arrazoitua eta, hala badagokio, ebazpen-proposamena ematea ere.

Batzordeak independentziaz, inpartzialtasunez eta konfidentzialtasunez jardungo du, Informazioaren eta Gorabeheren Kudeaketa Prozeduraren arabera.

Ondorioak Antolaketa Idazkaritzara eramango dira, dagozkion antolaketa-neurriak har ditzan, eta Hegoaldeko Idazkaritzara helaraziko dira, Estatutuen arabera berresteko.

Batzordearen eginkizunak, eskumenak eta funtzionamendua Informazioaren eta Gorabeheren Kudeaketa Prozedurak eta hura garatzen duen barne-araudiak arautuko dituzte.

5. ARTIKULUA: EREMU OBJEKTIBOA ETA INTEGRAZIO NORMATIBOA

Kode Etikoak erakundearen printzipio eta balio gidariak, EH Bilduk bere gain hartutako konpromiso publikoak, garatzen dituen Jokabide Kodeak eta aplikazioari, kontrolari eta betetzeari buruzko prozedura-arauak biltzen ditu.

Bereziki, Informazioaren eta Gorabeheren Kudeaketa Prozedurak izaera transbertsala izango du eta Kode honen ez-betetzeen izapidetzeari aplikatuko zaio, kasu bakoitzean aplikatzekoak diren protokolo espezifikoei kalterik egin gabe.

6. ARTIKULUA: EH BILDURI LOTUTAKO KARGU, EGINKIZUN EDO LAN-HARREMANA ESKURATZEKO ETA MANTENTZEKO BALDINTZA

Kode Etikoa onartzea eta sinatzea beharrezkoa da EH Bilduri lotutako kargu publiko, organiko, ordezkaritza-eginkizun edo lan-harremanak eskuratzeko eta mantentzeko.

Karguaren, erantzukizunaren edo jarduera-eremuaren arabera hala dagokionean, berariazko eranskinak edo garapen-konpromisoak sinatzea eskatu ahal izango da, eskatzen den konpromisoa berariaz jasotzeko. Eranskin eta konpromiso horiek izaera loteslea izango dute, eta EH Bilduren barne-araudiaren parte izango dira.

Eranskin horien artean, hala dagokionean, Proiektu Kolektiboaren Iraunkortasunerako Ekarpen Konpromisoaren Eranskina sartu ahal izango da, Ekonomia Osotasunaren arloko Jokabide Kodean aurreikusitako kasuetan.

6 BIS ARTIKULUA: KONPROMISO DEMOKRATIKOAREN, BIZIKIDETZAREN ETA ARBUIO PUBLIKOAREN ADIERAZPEN OROKORRA HAUTESKUNDE-LEGERIAK AURREIKUSITAKO KASUETAN

Kode Etiko honi atxikitzeak, aplikazio-eremuan sartutako pertsona guztientzat, printzipio demokratikoak, giza eskubideak, bizikidetza demokratikoa, gatazken konponbide baketsua eta indarkeriaren arbuioa berariaz, orokorrean eta loteslean onartzea dakar.

Kode honi atxikitako pertsona bat Hauteskunde Araubide Orokorraren Lege Organikoaren 127.4 artikuluan aurreikusitako kasuan sartuta badago, Kodeari atxikitzeak, berariaz, lotesle eta publikoki, honako adierazpen hau ekarriko du:

"Era berean, Hauteskunde Araubide Orokorraren Lege Organikoaren 127.4 artikuluan aurreikusitako kasuan sartuta nagoenez, adierazten eta deklaratzen dut publikoki ez dudala onartzen kondenatu nauten epaietan ezarritako egitateetan erabilitako helburuak eta bitartekoak, legezko manu horretan ezarritakoaren arabera."

7. ARTIKULUA: INDARRALDIA ETA ALDAKETA

Kode Etikoak indarraldi mugagabea izango du eta EH Bilduren Batzar Nagusiak aldatu ahal izango du, Estatutuetan aurreikusitakoaren arabera.

8. ARTIKULUA: JARRAIPENA ETA GARAPEN NORMATIBOA

Etika eta Betetze Batzordeak Kode Etikoaren etengabeko jarraipena eta aldizkako ebaluazioa egingo du, eta beharrezkotzat jotzen dituen aldaketak edo eguneratzeak proposatu ahal izango ditu, dagokion txostena Antolaketa Idazkaritzari edo dagokion organo eskudunari helaraziz.

Kode Etikoaren edukia erregelamenduen, protokoloen, jokabide-kodeen, arauzko eranskinen edo erakundearen barne-araudi sistemaren parte izango diren beste barne-tresna batzuen bidez garatu ahal izango da.

9. ARTIKULUA: BETETZEA ETA LAGUNTZEKO BETEBEHARRA

EH Bilduk aktiboki zainduko du Kode Etikoa eta garatzen dituen Jokabide Kodeak betetzen direla.

Kode honen mende dauden pertsona guztiek erakundeak ezarritako gainbegiratze-, kontrol-, auditoretza- edo ikerketa-mekanismoekin lankidetzan aritu beharko dute, betiere prozedurazko bermeak errespetatuz.

10. ARTIKULUA: KODE ETIKOAREN EZ-BETETZEA ETA ONDORIOAK

Etika eta Betetze Batzordeari dagokio egitateak ezagutzea, aztertzea eta instruitzea, Kode Etikoaren balizko urraketa dagoen ala ez baloratzea eta dagokion txosten edo proposamen arrazoitua ematea.

Urraketa etikoa dagoela baloratzeak, egitateen izaera, pertsonak EH Bildurekin duen lotura juridikoa eta aplikatu beharreko araubide juridikoa kontuan hartuta, neurri etikoak, politikoak, antolakuntzakoak, prebentziozkoak edo diziplinazkoak hartzea ekar dezake. Neurri etikoak, politikoak, antolakuntzakoak edo prebentziozkoak Antolakuntza Idazkaritzak hartuko ditu, Kode Etiko honetan eta aplikatu beharreko gainerako barne-araudian xedatutakoaren arabera. Egitateek diziplina-hauste bat izan dezaketenean, espedientea organo eskudunari helaraziko zaio, dagokion prozedura hastea balora dezan.

Pertsona berak EH Bildurekin aldi berean hainbat lotura juridiko dituenean, kasuan kasu aplikatu ahal izango dira dagozkion araubideak, egitateen izaera, ustez urratutako betebeharra eta ukitutako lotura juridikoa kontuan hartuta.

Lotura juridiko bat baino gehiago batera egoteak ez du berez ekarriko aplikagarriak diren araubide guztietan aurreikusitako prozedura guztiak hastea. Kasu bakoitzean, modu arrazoituan eta egitateen izaera, ustez urratutako betebeharra, ukitutako lotura juridikoa eta beharrezkotasunaren, proportzionaltasunaren, koordina-

zioaren eta administrazio onaren printzipioak kontuan hartuta baloratuko da nahikoa diren neurri etikoak, politikoak, antolakuntzakoak edo prebentziozkoak hartzea edo, hala badagokio, horretarako justifikazio autonomoa dagoenean, diziplina-prozedura bat edo gehiago sustatzea.

Neurri etikoak, politikoak, antolakuntzakoak edo prebentziozkoak hartzeak ez du berez diziplina-prozedura bat irekitzea ekarriko. Prozedura hori Estatutuen, Diziplina eta Bermeen Kodearen, lan-arloko araudiaren edo aplikatu beharreko araubide juridikoaren arabera izapidetuko da.

Pertsonak garrantzi bereziko kargu edo erantzukizun publiko, instituzional edo antolakuntzakoa betetzen duenean, eredugarritasuna, erantzukizuna, konfiantza publikoa, koherentzia politikoa eta osotasun etikoa babesteko, bidezkoak diren neurri etikoak, politikoak, antolakuntzakoak edo prebentziozkoak hartu ahal izango dira.

Neurri horien artean egon daitezke jokabidea zuzentzeko edo kargua uzteko errekerimendua egitea, erantzukizun jakin batzuei uko egiteko gomendioa egitea, hala badagokio akta entregatzeko edo ordezkaritza-eginkizunak uzteko eskatzea, konfiantza politikoa edo antolakuntzakoa kentzea, EH Bilduren organo, prozesu, hautagaitza edo jardueretan parte hartzea mugatzea, bai eta erakundearen osotasun etikoa, konfiantza politikoa, irudi publikoa eta funtzionamendu egokia babesteko beharrezkoak eta proportzionatuak diren bestelako neurriak hartzea ere.

Hartutako jarduketa guztiek, edonola ere, legezkotasunaren, proportzionaltasunaren, arrazoiketaren, objektibotasunaren, arbitrariotasunik ezaren, organoen arteko koordinazioaren eta aplikagarriak diren bermeen printzipioak errespetatu beharko dituzte.

11. ARTIKULUA: USTEZKO EZ-BETETZEAREN AURREAN PROZEDURA

EH Bilduren Kode Etikoa urratu izanaren zantzuak daudenean, haren kudeaketa, izapidetzea eta ikerketa Informazio eta Intzidentziak Kudeatzeko Prozeduraren arabera egingo dira, eta, hala badagokio, gaiaren arabera aplikagarriak diren berariazko protokoloen arabera.

Etika eta Betetze Batzordeari dagokio egitateak instruitzea, Kode Etikoaren balizko urraketa baloratzea eta dagokion txosten edo irizpen arrazoitua ematea.

Txostena edo irizpena Antolakuntza Idazkaritzari helaraziko zaio, hala badagokio, bidezkoak diren neurri etikoak, politikoak, antolakuntzakoak edo prebentziozkoak har ditzan edo, egitateek diziplina-hauste bat izan dezaketenean, organo diziplinario eskudunaren jarduera susta dezan, Estatutuen, Diziplina eta Bermeen Kodearen eta aplikatu beharreko gainerako barne-araudiaren arabera.

Egitateek pertsona berari aplikagarriak zaizkion hainbat araubide juridikotan eragina izan dezaketenean, Etika eta Betetze Batzordeak bere txostenean edo irizpenean adierazi beharko du araubide bakoitzean jarduketak sustatzea bidezkoa den ala ez, koordinatutako, proportzionatutako eta segurtasun juridikoaren nahiz non bis in idem printzipioaren araberako erantzuna bermatzeko.

Neurri etikoak, politikoak, antolakuntzakoak edo prebentziozkoak hartzeak ez du berez diziplina-prozedura bat irekitzea ekarriko.

Estatutuek edo aplikatu beharreko gainerako barne-araudiak hala eskatzen dutenean, hartutako neurriak Hegoaldeko Exekutibari helaraziko zaizkio, dagokionaren arabera, haren berri izan dezan, berrets ditzan edo onar ditzan.

12. ARTIKULUA: ETIKA KANALA

EH Bilduk Etika Kanala du Kode Etikoaren eta Jokabide Kodeen inguruko kontsultak, komunikazioak edo salaketak egiteko.

Etika Kanalaren bidez egindako komunikazioak konfidentzialtasunez tratatuko dira, eta informatzaileen babesa bermatuko da errepresalien aurrean, informatzaileen babesaren arloan indarrean dagoen araudiaren arabera.

13. ARTIKULUA: KODE ETIKOAREN INTERPRETAZIOA ETA APLIKAZIOA

Kode Etiko hau fede onez interpretatuko da, Estatutuen eta EH Bilduren barne-araudi sistemarekin bat etorriz.

Informazioaren eta Gorabeheren Kudeaketa Prozedura izango da Kode Etikoarekin lotutako komunikazioak, gorabeherak edo balizko ez-betetzeak aplikatzeko, izapidetzeko eta kudeatzeko ohiko tresna, hargatik eragotzi gabe kasu bakoitzean aplikatzekoak diren protokolo espezifikoak.

Xedapen gehigarriak, iragankorrak eta azkenak

XEDAPEN GEHIGARRIA. KODE ETIKOAREN ONARPENA

Kode etiko hau eskumena duen Mahai Politikoak aurkeztuko du, EH Bilduren Batzar Nagusiak onar dezan, Federazioaren Estatutuetan aurreikusitakoaren arabera.

XEDAPEN IRAGANKORRA. ARAU-GARAPENA

Kode Etiko honen garapenean aurreikusitako arauak, prozedurak, protokoloak, jokabide-kodeak, eranskinak edo barne-tresnak onartu edo erabat operatibo egon arte, bertan xedatutakoa aplikatuko da, hargatik eragotzi gabe 8. artikuluan aurreikusitakoaren arabera gerora garatzea.

Kode Etikoa garatzeko onartzen diren xedapenak EH Bilduren barne-araudi sistemaren parte izango dira, eta sinatzaileen edo eragindakoen eskura jarriko dira gaitutako kanalen bidez.

Tresnak berak berariazko onarpena edo sinadura eskatzen ez badu, xedapen horiek jakintzat eta onartutzat joko dira eskura jartzen direnetik hiru egun naturaleko epea igarotakoan, organo eskudunaren aurrean esanbidezko desadostasuna adierazten ez bada.

Berariazko desadostasun Kode Etikoaren indarreko eta garatutako bertsioaren ez-onarpen gisa baloratu ahal izango da, baldin eta barne-araudiaren sistema betetzearekin bateraezina bada, eta dagozkion antolamendu-ondorioak izan ditzake.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENA. BERTSIO FINKATUA

Testu hau EH Bilduren Kode Etikoaren bertsio finkatua da.

Bertsio honek aurrekoak osorik ordezten ditu onartzen den unetik.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA. LOTURA

1. artikuluaren aplikazio-eremuan sartutako pertsonak Kode Etiko honi lotuta geratuko dira berariazko sinadura edo onarpena egiten den unetik, alta ematen zaienetik edo, oro har, erakundearekiko lotura-harremana ezartzen denetik, dagokionaren arabera.

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA. KODEA EZAGUTZEA, ONARTZEA ETA SINATZEA

Kode Etiko hau bere eremu subjektiboan sartutako pertsonek ezagutu eta sinatu beharko dute, bertan ezartzen diren printzipio, balio eta betebeharrekiko konpromiso politiko, etiko eta instituzionalaren adierazpen espresu gisa.

Sinatu ez izanak ez du Kode Etikoa betetzetik salbuetsiko, pertsona hori afiliazioagatik, karguagatik, funtzioagatik, lan-harremanagatik, hautagaitzagatik, izendapenagatik edo aplikazioa zehazten duen beste edozein loturagatik behartuta dagoenean, Kode honen eta EH Bilduren barne-araudiaren arabera.

Era berean, Kode Etiko honen edo barne-araudiaren edukia ez ezagutzeak ez du salbuetsiko aplikatu beharreko betebeharrak betetzetik.

AZKEN XEDAPENETATIK LAUGARRENA. INDARREAN JARTZEA

Kode Etiko hau indarrean jarriko da EH Bilduren Batzar Nagusiak onartzen duen unetik.

Data horretatik aurrera, Kode Etikoaren aurreko bertsioak eta haren edukiarekin bateraezina den barne-xedapen oro indarrik gabe geratuko dira.

Atxikimendu-dokumentua

EH Bilduren Kode Etikoari

Dokumentu hau sinatuz, sinatzaileak:

1. Berariaz onartzen du EH Bilduren Kode Etikoa, bere bertsio osoan eta dibulgatzailean, eta adierazten du haren edukia eskuratu duela eta konpromisoa hartzen du orain eta etorkizunean betetzeko.
2. Adierazten du ezagutzen, onartzen eta betetzen duela EH Bilduren barne-araudi sistema, Jokabide Kodeak, protokoloak, arauak, eranskinak eta barne-tresnak barne, bere harremanaren, karguaren, erantzukizunaren edo jarduera-eremuaren arabera une bakoitzean aplikatzekoak direnak. Bereziki, adierazten du IMAP Protokoloa jaso edo eskura izan duela eta berariaz onartzen duela haren edukia, aplikazioa eta betetzea.
3. Berariaz hartzen ditu Kode Etikoaren X. atalean aurreikusitako atxikimenduaren ondorioak, bere harremanaren, karguaren, erantzukizunaren edo jarduera-eremuaren arabera dagozkion konpromiso orokorrak, betebehar espezifikoak edo indartuak eta balizko ez-betetzearen ondorioak barne, EH Bilduren barne-araudi sistemaren arabera.
4. Konfidentzialtasunerako eta informazioa babesteko betebeharra hartzen du bere gain, bai eta, hala badagokio, antolaketa-akordioetatik, lan-baldintzetatik, eranskin espezifikoetatik edo aplikatzekoak diren beste barne-tresna batzuetatik erator daitezkeen betebehar ekonomikoak ere.
5. Adierazten du badakiela eta bere gain hartzen duela Kode Etikoak konpromiso demokratikoari, bizikidetzari, giza eskubideei, gatazken konponbide baketsuari eta indarkeriaren arbuioari buruzko adierazpen orokor, publiko eta loteslea jasotzen duela, bai eta berariazko arbuio publikoaren adierazpen espezifiko bat ere, hura ere publikoa eta loteslea, sinatzailea Hauteskunde Araubide Orokorraren Lege Organikoaren 127.4 artikuluan aurreikusitako kasuan sartuta dagoenerako.

Izen-abizenak _____

NAN _____

Lekua eta data _____

Sinadura _____

☐ EH Bilduren jarduera politikoarekin eta antolamendu-jarduerarekin lotutako barne- eta kanpo-komunikazioak jasotzeko baimena ematen dut.

☐ Nire irudia (argazkiak, bideoak edo grabazioak) komunikabideetan, sare sozialetan eta EH Bilduren material korporatiboetan zabaltzeko baimena ematen dut.

Lege-oharra-datuak babestea:

Tratamenduaren arduraduna: EH Bildu.

Datu pertsonalak erakundearekiko harremana kudeatzeko tratatuko dira (inskripzioa, parte-hartzea eta barne-kudeaketa), harremanaren gauzapenean oinarrituta (DBEOren 6.1.b artikulua), bai eta Kode Etikoa eta barne-araudia betetzen direla bermatzeko ere, interes publikoan edo interes legitimoan oinarrituta (DBEOren 6.1.e eta 6.1.f artikuluak).

Barne-jardueretan parte hartzearen esparruan (batzarrak, txostenak edo beste antolamendu-espazio batzuk), datu pertsonalak erakundearen barne-esparruan tratatuko dira oro har. Hala ere, parte hartzeko prozesuetan, barne-eztabaidan edo dokumentuak egitean (txostenak edo ekarpenak), egindako ekarpenei publizitatea eman ahal izango zaie, baita kanpokoa ere, eta egilearen izen-abizenak sartu ahal izango dira prozesuaren gardentasuna eta garapen egokia bermatzeko beharrezkoa denean, betiere minimizazio- eta proportzionaltasun-printzipioak errespetatuz eta, hala dagokionean, interesdunaren adostasunean oinarrituta.

Era berean, EH Bilduko kargu publikoaren (hautatua edo izendapen askekoa) edo kargu organikoaren izaera hartuz gero, identifikazio-datuak (izen-abizenak) jarduera politiko eta elektoralaren esparruan zabaldu ahal izango dira, aplikatzekoa den araudiarekin eta interes publikoan oinarrituta (DBEOren 6.1.e artikulua eta DBEOren 9.2.d artikulua).

Era berean, eta baimena emanez gero, datuak erabili ahal izango dira jarduera politiko eta antolamenduzkoarekin lotutako barne- eta kanpo-komunikazioak bidaltzeko, bai eta komunikabideetan, sare sozialetan eta material korporatiboetan irudiak erabiltzeko ere (argazkiak, bideoak edo grabazioak) (DBEOren 6.1.a artikulua).

Datuak agintari judizialei, administrazio-agintariei edo hirugarrenei jakinarazi ahal izango zaizkie erreklamazioak formulatzeko, egikaritzeko edo defendatzeko beharrezkoa denean, Kode Etikoa ez betetzearen kasuak barne. Kasu horietan, erakundearen defentsa juridikorako behar-beharrezkoa den informazioa zabaldu ahal izango da, datuen minimizazio- eta, ahal denean, anonimotasunaren-printzipioak aplikatuz.

EH Bilduk gaitutako kanalen bidez erabili ahal izango ditu datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, tratamendua mugatzeko, aurka egiteko eta transferitzeko eskubideak. Era berean, edozein unetan kendu ahal izango du baimena, aurretiko tratamenduaren zilegitasunari eragin gabe.

ehbildu